Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2014ko abenduaren 17a, asteazkena — 240 — Miércoles, a 17 de diciembre de 2014

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 3 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

662/2014 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, 115 eredua («Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik datozen errenta edo etekin jakin batzuen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Autolikidazioa») eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituena.

2002ko urtarrilaren 9ko 3/2002 Foru Aginduaz, onartu egin zen 115 eredua, alegia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako sarreren aitorpenari eta ordainketa agiriari buruzkoa, higiezin hiritarren errentamendutik datozen etekinei dagokienez.

Bestetik, 115 eredua sartuta zegoen telematikoki aurkeztu beharreko aitorpenen artean, hala jasotzen baitzuen 2004ko otsailaren 25eko 165/2004 Foru Aginduak, aitorpen-likidazio jakin batzuk telematikoki aurkezteko prozedurari buruzkoak.

Orduan geroztik hamar urtetik gora igaro dira, eta araudi aldaketa ugari gertatu dira xedapen haiek onartu zirenetik, besteak beste, pertsona fisikoen errentaren eta sozietateen gaineko zergen funtsezko arauak eta horien erregelamenduzko xedapenak. Zergen Foru Arau Orokorra eta hori garatzeko erregelamenduak ere aldatu dira.

Bestetik, denbora tarte honetan prozedura telematiko eta elektronikoek garapen handia izan dute eta bitarteko elektronikoen erabilpenean borondatez betetzekoak izatetik nahitaez betetzekoak izatera igaro dira, gaitasun ekonomiko edo teknikoa, lanbidea edo beste arrazoi akreditatu batzuk direla-eta beharrezko bitarteko elektronikoak eskura dituzten pertsona fisikoak edo pertsona fisikoen kolektiboak direnean. Hori horrela, prozedura horien garapenak funtsean aldatuak dituzte zerga likidazioen aurkezpen moduak.

Zergen eremuan, derrigortasun hori Zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioari buruzko azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak ezartzen du izaera orokorrez. Hori horrela, foru agindu horretan zehaztuta daude tramiteak eta komunikazioak bitarteko elektronikoz egitera behartuta dauden zergadunen kolektiboak, betiere komunikazio modalitate hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net) erabiltzeko moduan badago.

Aldaketa horiek arrazoi nahikoa dira, berez, lehenago aipatutako foru aginduak eguneratzeko, nahiz eta ematekoa den informazioan aldaketa handirik ez egon 3/2002 Foru Agindua onartu zenez geroztik.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 662/2014, de 11 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 115 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes). Retenciones e Ingresos a cuenta sobre determinadas rentas o rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos. Autoliquidación» y las formas y plazos de presentación e ingreso.*

Por Orden Foral 3/2002, de 9 de enero, se aprobó el modelo 115 de declaración-documento de ingreso de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes con establecimiento permanente, en relación con rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos.

Por su parte, la Orden Foral 165/2004 de 25 de febrero, por la que se regula el procedimiento para la presentación por vía telemática de determinadas declaraciones-liquidaciones, incluía el modelo 115 entre las declaraciones a presentar a través de dicho procedimiento.

Ha pasado más de una década y las modificaciones normativas desde la aprobación de dichas disposiciones han sido numerosas, empezando por las normas sustantivas de los Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas y sobre Sociedades, así como de sus disposiciones reglamentarias. También se ha modificado la Norma Foral General Tributaria y sus reglamentos de desarrollo.

Por otra parte, el desarrollo que en ese tiempo han tenido los procedimientos telemáticos o electrónicos, que han pasado de un enfoque voluntario a otro de obligado cumplimiento en la utilización de medios electrónicos cuando se trate de personas jurídicas o colectivos de personas físicas que por razón de su capacidad económica o técnica, dedicación profesional u otros motivos acreditados tengan garantizado el acceso y disponibilidad de los medios tecnológicos precisos, han modificado sustancialmente las formas de presentación de las autoliquidaciones tributarias.

En el ámbito tributario dicha obligatoriedad ha venido establecida con carácter general en la Orden Foral 1.011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica, determinando los colectivos de contribuyentes que están obligados a efectuar a través de medios electrónicos los trámites y comunicaciones, siempre que dicha modalidad de comunicación esté habilitada en la sede electrónica https://www.gfaegoitza.net de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Dichos cambios, por si solos, ya justifican la necesidad de actualizar las órdenes forales antes citadas, aun cuando la información a suministrar no haya sufrido alteraciones importantes desde la aprobación de la primeramente citada Orden Foral 3/2002.

EK\CV GAO-I-2014-11215

Horri dagokionez, 2014ko urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 92.1 artikuluan jasotzen duenez, 95. artikuluan jasota dauden eta higiezin hiritarren errentamendu edo berrerrentamendutik datozen etekinak ordaintzen dituzten pertsonak edo entitateak behartuta daude, ondasun horien kalifikazioa alde batera utzita, jasotzailearen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan atxikitzera eta Foru Aldundian ordaintzera, betiere erregelamendu horretan jasotako arauei jarraituz.

Erregelamendu horrek 120.1 artikuluan dioenez, atxikipenak eta konturako sarrerak egitera behartuta dagoen subjektu pasiboak hiru hilabetean behin aurkeztu behar du aurreko lehen hiruhileko naturalean atxikitako zenbatekoen eta kontura sartutako kopuruen aitorpena, eta zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo dira, aurreko lehen hilean atxikitako zenbatekoei eta kontura egindako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 71. artikuluaren 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen dituen egoeren barruan badaude.

Bestetik, 120. artikulu horren 5. apartatuari jarraituz, aitorpena eta ordainketa Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zehazten dituen moduan, tokian eta epeetan egingo dira. Era berean, foru diputatuak artikulu horretan jasotako aitorpenak bitarteko telematikoez aurkezteko modua, tokia eta epeak finkatu ahal izango ditu.

Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 130. artikuluan konturako ordainketak arautzen ditu, konturako ordainketa kontzeptuan atxiki edo konturako sarrerak egiteko betebeharra, zerga horri lotutako errentak ordaintzen direnean. Atxikitzera behartuta dagoen subjektuak Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak finkatutako eredu, epe, modu eta tokietan aurkeztu behar du atxikipenei buruzko aitorpena edo, atxikipenik ez bada, aitorpen negatiboa.

Establezimendu iraunkorrak behartuta daude atxikipenak eta konturako sarrerak Sozietateen gaineko Zergaren Gipuzkoako araudira bildutako entitate egoiliarren modu berean egitera, eta horiei exijitutako obligazio formal guztiak betetzera, hala jasotzen baitu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 23. artikuluan.

Horiek horrela, hau.

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 115 eredua onartzea.*

*Bat.* Onartu egiten da 115 eredua, alegia, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga [establezimendu iraunkorrak]. Ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik datozen errenta edo etekin jakin batzuen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Autolikidazioa». Eredu hori foru agindu honen I. eranskinean jasota dago.

Ereduak bi ale ditu: bata aitortzailearena, eta, bestea, Administrazioarena.

*Bi.* Onartu egiten dira 115 eredua bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkezten diren aitorpenek bete behar dituzten diseinu fisiko eta logikoak. Foru agindu honen II. eranskin gisa jasota daude.

*2. artikulua. 115 eredua aurkeztu behar dutenak.*

*Bat.* 115 eredua erabili beharko dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gai-

Al respecto, el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, establece en su artículo 92.1 que las personas o entidades contempladas en el artículo 95 que satisfagan o abonen rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, independientemente de su calificación, estarán obligadas a retener e ingresar en la Diputación Foral, en concepto de pago a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al perceptor, de acuerdo con las normas de dicho Reglamento.

El artículo 120.1 del referido reglamento establece que el sujeto obligado a retener y practicar ingresos a cuenta deberá presentar trimestralmente declaración de las cantidades retenidas y de los ingresos a cuenta practicados que correspondan por el trimestre natural inmediato anterior e ingresar su importe en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará mensualmente en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refiere el artículo 71.3.1.º y 2.º del Real Decreto 1.624/1992, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Por su parte, el apartado 5 del referido artículo 120 dispone que la declaración e ingreso se efectuará en la forma, lugar y plazos que determine la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, quien podrá, asimismo, establecer los supuestos y condiciones, así como la forma, lugar y plazos de presentación de las declaraciones a que se refiere dicho artículo por medios telemáticos.

La Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades, regula en su artículo 130 los pagos a cuenta, estableciendo la obligación de retener o efectuar ingresos a cuenta, en concepto de pago a cuenta, cuando se abone rentas sujetas a dicho impuesto. El obligado a retener deberá presentar en los modelos, plazos, forma y lugares que determine la diputada o el diputado foral de Hacienda y Finanzas, declaración de las cantidades retenidas o declaración negativa cuando no se hubiere producido la práctica de las mismas.

La Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, establece en su artículo 23 que los establecimientos permanentes estarán obligados a practicar retenciones e ingresos a cuenta en los mismos términos que las entidades residentes sometidas a la normativa guipuzcoana reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 115.*

*Uno.* Se aprueba el modelo 115 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes). Retenciones e Ingresos a cuenta sobre determinadas rentas o rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos. Autoliquidación» que figura como anexo I de la presente Orden Foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares uno de los cuales es para el declarante y otro para la Administración.

*Dos.* Se aprueban los diseños lógicos a los que deberán ajustarse las declaraciones presentadas por medios electrónicos del modelo 115 a través de fichero, que se incluyen como anexo II de la presente Orden Foral.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 115.*

*Uno.* El modelo 115 deberá ser utilizado por los retenedores y obligados a ingresar a cuenta que satisfagan o abonen a contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas

EK\CV GAO-I-2014-11215

neko zergaren zergadunei ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik datozen etekinak ordaintzen dizkieten atxikitzaileek eta konturako sarrera egitera behartuta daudenek, salbu eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jasotako higiezin hiritarren berrerrentamendutik etorri eta kapital higigarriaren etekintzat hartzen diren errentak. Azken kasu horretan, atxikitzera edo konturako ordainketa egitera behartuta dauden subjektuek 123 eredua aurkeztu behar dute.

Ez da zertan aitorpenik aurkeztu, aitorpenaren aldian atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentarik ordaindu ez denean.

*Bi.* Ez da derrigorrezkoa izango atxikipenik edo konturako sarrerarik egitea, kasu hauetan:

— Enpresek beren langileentzat egindako etxebizitza errentamendua denean.

— Errentariak errentatzaile berari ordaindutako errentak urteko 900 eurotik gorakoa ez denean.

— Errentatzailearen jarduera 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duenak, jasotako tarifen lehen sekzioaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, hiri ondasun higiezinak errentan edo azpierrentan emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrentan ematen diren ondasun higiezinen balio katastralari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko arauak aplikatuta zero kuota ateratzen ez denean.

— Etekinak Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 18. artikuluan jasotako errentamendu finantzarioko kontratuetatik datozenean.

— Errentak 2/2014 Foru Arauaren 12.1 artikuluan jasotako entitate erabat salbuetsiek lortuak direnean.

*3. artikulua. 115 eredua aurkezteko moduak.*

*Bat.* 115 eredua honela aurkeztu ahal izango da:

a) Internet bidezko aurkezpen elektronikoa, «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoez atariaren bidez egin beharko dena (https://www.gfaegoitza.net), eta honako modu hauek erabiliz egin ahal izango da:

— Formulario bidez, hura «Gipuzkoataria» bidez betez eta aurkeztuz.

— Fitxategi bidez, fitxategiak bidalita. Bidaltzen diren fitxategiek foru agindu honen II. eranskinean jasotzen diren diseinu logikoak bete behar dituzte.

Igorpen elektronikoa egiteko, azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Bidali behar den fitxategi informatikoa betetzeko, erabiltzaileek «ZergaBidea» laguntza programa ofiziala izango dute eskura bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net). Dena den, posible da beste edozein programa informatiko erabiltzea, betiere foru agindu honen II. eranskinean jasota dagoen formatuko fitxategia lortzeko aukera ematen badu.

Internet bidez aurkeztutako 115 eredua aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi bada foru agindu honen 3. artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik, bide elektronikotik egin beharko da beti.

Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de los No Residentes con establecimiento permanente, rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos durante el período a que se refiera la declaración, salvo las rentas derivadas del subarrendamiento de inmuebles urbanos percibidas por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que tengan la consideración de rendimientos del capital mobiliario, en cuyo caso los sujetos obligados a retener o ingresar a cuenta deberán presentar el modelo 123.

No procederá presentación de declaración cuando no se hubieran satisfecho en el período de declaración rentas sometidas a retención e ingreso a cuenta.

*Dos.* No existirá obligación de practicar retención o ingreso a cuenta en los siguientes supuestos:

— Cuando se trate de arrendamiento de vivienda por empresas para sus empleados.

— Cuando las rentas satisfechas por el arrendatario a un mismo arrendador no superen los 900 euros anuales.

— Cuando la actividad del arrendador esté clasificada en alguno de los epígrafes del grupo 861 de la Sección Primera de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas, aprobadas por el Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, o bien, en algún otro epígrafe que faculte para la actividad de arrendamiento o subarrendamiento de bienes inmuebles urbanos, y aplicando al valor catastral de los inmuebles destinados al arrendamiento o subarrendamiento las reglas para determinar la cuota establecida en los epígrafes del citado grupo 861, no hubiese resultado cuota cero.

— Cuando los rendimientos deriven de los contratos de arrendamiento financiero a que se refiere el artículo 18 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— Cuando las rentas se obtengan por las entidades totalmente exentas a que se refiere el artículo 12.1 de la citada Norma Foral 2/2014.

*Artículo 3. Formas de presentación del modelo 115.*

*Uno.* La presentación del modelo 115 podrá ser realizada de las siguientes formas:

a) Presentación electrónica por Internet que deberá realizarse a través del portal de trámites y servicios «Gipuzkoataria» ubicado en la dirección https://www.gfaegoitza.net, y podrá efectuarse mediante:

— Presentación vía formulario, cumplimentando y presentando el mismo a través de «Gipuzkoataria».

— Presentación vía fichero, mediante transmisión de ficheros. En este caso los ficheros transmitidos deberán ajustarse a los diseños lógicos incluidos en el anexo II de la presente Orden Foral.

La transmisión electrónica se efectuará con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

Para la elaboración del fichero informático a transmitir se podrá utilizar el programa oficial de ayuda «ZergaBidea», que se pondrá a disposición de los usuarios en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección https://www.gfaegoitza.net, u otro programa informático capaz de obtener un fichero con el mismo formato que el que se recoge en el anexo II de la presente Orden Foral.

La modificación, rectificación o anulación del modelo 115 presentado por Internet que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 3 de esta Orden Foral, sólo se podrá efectuar por la misma forma electrónica.

EK\CV GAO-I-2014-11215

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinuaren araberakoa. Euskarriak bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Aipatutako euskarria eskuratzeko, erabiltzaileek inprima dezakete Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net helbidean) eskura izango duten PDF artxiboa.

*Bi.* 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluan sartutako zergapekoek bide elektronikoz bakarrik aurkeztu behar dute 115 eredua.

*Hiru.* 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko a) eta b) letretan aipatutako zergapekoek beren identitatea frogatu behar dute dela sinadura elektroniko balioztatuaren bitartez dela pasahitz operatiboa erabilita, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen den irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zergapekoak ez badaude behartuta zerga arloko tramite jakin batzuk bide elektronikoz egitera 1011/2010 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezarritako obligazioak eragiten ez dielako, eta, hala ere, aitorpena Internet bidez aurkeztea aukeratzen badute, sinadura elektroniko balioztatua edo pasahitz operatiboa erabiliz frogatu ahal izango dute beren identitatea, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen den irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

*Lau.* 115 eredua ordezkari bidez aurkezten denean, ordezkaritza frogatu beharko da Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen den 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 23. artikuluan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duen azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak xedatutakoaren arabera.

*4. artikulua. 115 eredua aurkezteko epea.*

*Bat.* 115 ereduaren aurkezpena eta egindako atxikipenen edo konturako sarreren ordainketa, apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehendabiziko hogeita bost egun naturalen barruan egingo dira, eta bertan urte naturaleko lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoengatik, hurrenez hurren, atxikitako eta kontura ordaindu beharreko zenbatekoak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren.

*Bi.* Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitorpena eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko lehen hilean atxikitako zenbatekoei eta kontura egindako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzaileak eta kontura sartzera behartutakoak 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoak, 71. artikuluaren 3. apartatuko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen dituen egoeren barruan badaude. Salbuespen gisa, uztaileko aitorpena eta ordainketa abuztuan eta ondoko lehen irailaren hogeita bost egun naturalen barruan egingo dira.

*Hiru.* Aurkezpen epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, epea ondoko lehen egun baliodunera arte luzatuko da.

*5. artikulua. 115 eredua paperean aurkezteko eta ordaintzeko tokia.*

Papera erabiliz gero, 115 ereduaren aurkezpena eta atxikipenen eta konturako sarreren ordainketa Zerga-bilketa Erregelamenduaren arabera diru bilketan laguntzeko baimenduta dauden entitateetako batean egingo dira (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak).

b) Soporte papel, que se deberá ajustar al diseño que figura como anexo I de la presente Orden Foral. El citado soporte se compone de dos ejemplares: Ejemplar para la Administración y ejemplar para el interesado.

El referido soporte se podrá obtener mediante la impresión del archivo PDF que se pondrá a disposición de los usuarios en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección https://www.gfaegoitza.net.

*Dos.* Los obligados tributarios que estén incluidos en el artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 antes citada, están obligados a presentar el modelo 115 exclusivamente por vía electrónica.

*Tres.* Los obligados tributarios a los que se alude en las letras a) y b) del artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 anteriormente citada deberán acreditar su identidad utilizando la firma electrónica reconocida o la clave operativa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

Los obligados tributarios que, no estando afectados por la obligación de realizar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica prevista en el mencionado artículo 1 de la Orden Foral 1011/2010, opten por presentar la declaración por Internet, podrán acreditar su identidad, utilizando firma electrónica reconocida o clave operativa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

*Cuatro.* Cuando la presentación del modelo 115 se realice a través de representante, la acreditación de la representación se efectuará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 23 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 115.*

*Uno.* La presentación del modelo 115, así como el ingreso de las retenciones practicadas o de los ingresos a cuenta correspondientes, se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que proceda realizar por el primero, segundo, tercero y cuarto trimestres del año natural, respectivamente.

*Dos.* No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará mensualmente en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta efectuados que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refiere el artículo 71.3.1.º y 2.º del Real Decreto 1.624/1992, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido. Por excepción, la declaración e ingreso correspondiente al mes de julio se efectuará durante el mes de agosto y los veinticinco primeros días naturales del mes de septiembre inmediato posterior.

*Tres.* Si el último día del plazo de presentación resultara sábado o inhábil, el plazo se prorrogará al día hábil siguiente.

*Artículo 5. Lugar de presentación e ingreso del modelo 115 en soporte papel.*

La presentación del modelo 115 en soporte papel, así como el ingreso de las retenciones practicadas y de los ingresos a cuenta que proceda realizar se efectuará a través de alguna de las entidades autorizadas, en los términos del Reglamento de Recaudación, para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (Bancos, Cajas de Ahorro o Cooperativas de Crédito).

EK\CV GAO-I-2014-11215

Autolikidazioaren emaitza aitorpen negatiboa bada, 115 eredua zerga-bilketaren kudeaketan laguntzaile jarduten den edozein entitatetan egin ahal izango da (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak) edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako edozein bulegotan.

*6. artikulua. Internet bidez aurkeztutako 115 eredua ordaintzeko modua.*

*Bat.* Internet bidez aurkeztutako 115 ereduaren autolikidazioei dagozkien ordainketak bankuan helbideratuz edo ordainketa-pasabidearen bitartez egin ahal izango dira.

*Bi.* Banku batean helbideratuz gero, ordainketa kargatuko da zergadunak autolikidazioan adierazten duen kontuan, zeinak haren izenean irekita egon behar baitu zergak biltzeko baimenduta dagoen entitate laguntzaile batean. Ondorio horietarako, aplikatuko da Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak, 2006ko abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 30. artikuluan xedatutakoa.

*Hiru.* Diru-sarrera egiteko ordainketa-pasabidea erabiltzen bada, kontuan hartuko da abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak ezartzen duen prozedura. Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzeko era arautzen da foru agindu horretan. Autolikidazioa ongi igorritakoan egin ahal izango da diru sarrera.

Ordainketa-pasabidea erabilita ere, autolikidazioak aurkezten direnean nahitaezkoa da helbideratze kontuaren datuak betetzea.

